

Hizkuntza Politikaren Plan Estrategikoa (2016-2019) Partaidetza Prozesua

Bilera-mota	Lurralde-bilera
Eguna	2016-10-25
Ordua	17:00-19:00
Lekua	Zangoza, kultur etxea

Bertaratutakoak	
Rafael Blanco Arbe (Zangozako institutua)	Patxi Larraz Larran
Ana Beorlegi Usoz (Zangoza ikastola)	Nora Uribeetxeberria (Arangoiti ikastola)
Amaia Aldanondo Perkaz (Zangozaldeko aek)	Patricia Armendariz Aristu (Arangoiti ikastola)
Jone Usoz Ortiz (Zangozako zinegotzia)	Dabid Lalana Salbotx (Erronkari eta Zaraitzuko euskara teknikaria)
Naroa Labairu Uriz (Bi haizetara euskara elkarte)	Leire Rebole Labairu (Zangoza ikastola)

Euskarabidetik: Mikel Arregi

Elhuyarretik: Jon Abril

Gai zerrenda
- Ongietorria - Elkar ezagutzea - Plan Estrategikoaren hasierako idatzaldia aurkeztea - Lanketa: talde-lana - Balorazioa eta agurra

Bileran egindakoa

Zangozako Alkateak, Angel Navallasek ongi etorria egin du eta elkar ezagutzeko izen-erronda bat egin dugu. Mikel Arregik, Euskarabideko Zuzendariak, Plan Estrategikoaren prozesuaren nondik norakoak eta Planaren markoa azaldu du eta ondoren, Elhuyarreko teknikaria den Jon Abrili eman dio hitza, planaren helburuak aurkezteko. Aurkezpena egin bitartean, parte-hartzaileek lanketa-fitxa izan dute eskuartean oharrak jasotzeko. Lanketa-fitxak honakoa jasotzen zuen: *Erantsiko nuke.../ Zalantza eragiten dit.*

Aurkezpenaren ondoren, talde txikiak egin ditugu eta galdera hauen inguruan jardun dugu lanean:

- Zerbait erantsiko zenuke? Zerbait faltan bota duzue?
- Zerbaitek zalantza eragin dizue?



Ondoren, talde handian konpartitu dugu talde txikietan hausnartutakoa. Saioa bukatzeko, balorazioa egin dugu eta hurrengo urratsak zein izango diren gogoratu ditugu.

Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Erantsitakoak edo azpimarratzekoak diren alderdiak:

- Eremu ez-euskaldunera euskara zerbitzuak hedatu: Zangozako herrian edo eskualdean. Horretarako baliabideak eskaini udalei.
- Ekintza zehatzagoak behar dira, eta epeak jarri.
- Eskolaz kanpoko ekintzak, ezinbestekoak haurrek eta gazteek euskara erabiltzeko.
- Aisialdi antolatuan irakasle edo monitorea euskaldunak izan behar dira (% batean behintzat) haur eta gaztetxoek aisialdi antolatu hori euskaraz egin dezaten (musika eskolak, adibidez). Zangozan ez dago aukera hau.
- Musika eskoletan irakasle euskaldunak bermatu.
- Batxilergoa eta Lanbide Heziketa: ahal den neurrian, bertan, eta bestela, eskualdetik kanpo joan behar badute, bermatu euskaraz ikasteko baliabideak.
- Euskarazko produktuen kontsumoa sustatzea, ezagutzera ematea, kanpainak antolatzea...
- Euskarazko hedabideen kontsumoa sustatzeko ekintza zehatzagoak.
- Eragileoi zein familiei euskara sustatzeko eta erabiltzeko estrategiak, baliabideak... eman, nola eragin jakiteko.
- Euskalkiei garrantzia eman behar zaie, baina ez ditugu euskalkirik ez duten hiztunak ahaztu behar. Askotan iruditzen zaigu euskalkirik ez izateagatik ez garela horren euskaldun. Uste horri buelta eman behar zaio.
- Gazteen artean euskaraz egitea balio positibotzat indartzeko ekintzak antolatzea oso garrantzitsua da, baina eragiteko esparru oso zaila dela uste dut.
- Helduen euskalduntzerako baliabideak jarri, lana ikusarazi, prestigioa eman, azpiegiturak eskaini... Euskara ikasteko espazioak zabaldu, kalean ikus dadila.
- Aurrekontua: horrelako plangintza baterako ez dago baliabide nahikorik.
- Eleaniztasunaren garrantzia azpimarratu beharko litzateke.
- G eredu desagerrarazi, derrigorrez ikasle guztiek euskara, gutxienez ikasgai moduan, ikas dezatela.



Bileran jasotako iritziak eta ekarpenak

Zalantza eragiten duten alderdiak:

- Gazteen erabilera nola sustatu. Motibazioan nola eragin.
- Euskara teknikaririk ez izatea. Eskualdean teknikaria edukitzea bultzatu.
- Eskualde eta herrietan egoera ezberdinak dauden neurrian, plana eskualde bakoitzeko errealitatera egokitzeko beharra dago.
- D eredua irakaskuntza publikoan eskaini eta ezarri aurretik, ikastolak dauden tokietan eztabaida prozesuak bideratu beharko lirateke. Zein da Gobernuaren jarrera gai honetan?
- Euskararen prestigioa hainbat tokitan oso txikia da, “ghettizazio” prozesua ari da gertatzen.
- Gobernua gauza izango da oldarraldi honi erantzuteko?
- Arlo sozioekonomikoa.
- Nola gauzatu hau guztia eremu ez-euskaldunean.

Bileraren balorazioa

Bakoitzak hitz batez baloratu du saioa eta saioan landutakoa:

- Berria
- Itxaropena (3)
- Interesgarria
- Bazen ordua
- Anbizio handikoa

Eta saioaren balorazioa orokorra egiteko, balorazio-orria bete dute. Hona emaitza:

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA (lurralde-bilerak)

BALORAZIOA				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA		1	1	6
GAIK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT			3	5
BILERAREKIKO ESPEKTATIBAK BETE DIRA			5	3
BILERA AURRETIK JASOTAKO INFORMAZIO NAHIKOA IZAN DA	1	1	3	2
GIROA ATSEGINA IZAN DA				8
PLAN ESTRATEGIKORAKO EKARPEN INTERESGARRIAK EGIN DIRA			2	6
GAUZA BERRIAK IKASI DITUT		1	6	1
BILERAN PARTE-HARTZEAK AURRERA BEGIRAKO URRATSETARAKO MOTIBATU EGIN NAU			5	3
HARREMAN ETA SARE BERRIAK ERAIKI DIRA	1		6	1
BILERAN PARTE HARTZEAK ASETU NAU			4	4

EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK:

- Eskerrak eman, egindako esfortzuagatik, plana mundiala da eta espero dezagun guztion artean aurrera ateratzea. Mila esker!